

**MARZELIN HEGIAPHAL (1910-1996)**  
EUSKALTZAINDIKO URGAZLEAREN OMENALDIA

*Sohüta, 1996-VII-20*

Marzelen lagün maitea, semealabak, askaziak, herritarrak, jaun andereak.

Egün hun deiziela  
txipiak eta handiak,  
aberatsak eta praubiak  
arrastiri hun dereiziela.

Hola erranen zeikün Marzelin-ek oraiartino aski etxeki balü gurekin izateko. Eni heltü zaitan egitekoa hortakoz ezta batere txipi. Uhure zait, gizon, aita, langile, eüskaldün eta eüskaltzale gisa bere eginbideak bete dütian baten gora aipatzea.

*Gizona* lehenik, Marcelin Hegiaphal jauna Sorhutan 1910.gerreneko ürrietaren hamarrea sortürrik, Jean Hegiaphal pastoral errejentaren semea günian. Gazte denboran laborantxan erauntsirik begiratü züan ofizio horren errespetü handia. Bigerren gerla hontan bere partea eginik, ordüko Frantziak Alemania zokoan ahatze züan, aita familiazko hori, presuner bost urteez. Etxahunek bezala pentsatü zükean:

aski sofrütiz nik hanitxetan  
desir nükean hiltzea  
ezpazüntüdan hain maite  
oi! Ama Eüskal Herria.

Haleikere Frantzia amaxünaren amodioa txipi bazeion, Hitlerenpeko denbora horrek, Errepublikaren ganako etxekimentüan azkartü zeion. Osagarria, aldiz galdü züan: hantik ützüli zenean, urtebetez eri handi egon beitzen, eta geroztik ere ezpeitzen sekülan azkarregi izan.

*Aita*, bigerrenik, gerlara joan zelarik bi haur ützi zütian eta gerla ondoan beste lau üken. Larrañeko den eüskaldün emaztearen ganik. Horien oroen hazteko, Euskal Herrian egoiteko, laborantxa gabe bizitzeko, zankaka hanitx egin düti Marzelin Hegiaphalek.

*Langilea*. Lehenik josteko bekanika mekanizienta izan züzün, gero Pataugas oski lantegian salgeien igorle, geroago Sohutan familiako zur segagian, bere lan bizitze lüzea komertzioko lanetan ürrentzeko.

*Eüskaldüna*. Aita bezala jakin züan Marzelin-ek sei seme alaben hazten, hezten eta eskolatzan geroago bizipide hunak üken zetzen. Jadanik Sohutan karrrikako gazteen artean frantzimantgoa бүрүзagi zelarik, etzizüen etxeko heek gure mintzajea baztertü: eüskara haurrer irakatsi zeien aitetamek Pierre, Emile, Evelyne, Bernadette, Charles eta Sylvie aurrider.

Marzelinek ziozüen lehen bezala aski zela hogeita hamar bat gizon eta emazte botz ederrekin haütautzea aktür izateko. Ikusten züan ere dener plazer egiteko edo bi berseten erranarazteko pastoralak hausten züela beharrik gabeko pertsonaje sobera sartzez. Harantako botz ederra behar zen aktürretan, eta zion bezala “ez ahüntz eta txakür botzik”.

Gero uste züan beste hogei, hogeita hamar kantari hartzen ahal dela küretan, kantari saldoan, xinpleki beztitüürük eta pastoraleko harahunaketan ikusiko eztirenak.

Hegiaphalen arrenküra handia zen ikustea ixtoria gabeko trajediak idazten zirela. Bestalthe, nahiz etzen politika aipamenen etsai, behin bederen gaizki ikusi züan basa pastoral batetan süjetan ahoan ezarten zuela berak behinere erran etzüütiarak eta kon-tatzen sekülan bizitü etzüütiarak. Berak zion ere etzela ele larririk ezari behar aktüren ahotan, satanen basa peredikietan baizik.

Azkenik errejent batekin etzen akort zeren horrek agerraldi bakoitzean prosesion lüzeetan agerrarazten beitzütian parte hartzen etzien aktür zombait ere. Entrada handiak uste züan lehen peredikian, azkenian eta süjeten hiltzean baizik etzirela egin behar bes-telan erritma hausten beitzen. Ikusten züan lehen bi entrader jenteek kasü egiten züela, bena gero, bi agerraldiren artean elestan hasten, ixtoriaren haria galtzen, lüzetarzünak aspertürik.

Egia da handiuskeria pastoraletan sartü zaiküla eta 500.000 liberatako aitzin kontiarekin ezpada agertzen zombaiter etzaiela aski handi. Aata, bere azken pastorala, ihuri sosik galtatü gabe Sorhutak muntatü züan Marzelinekin 80.000 liberekin hogeita hamar bat jokülariekin.

Aspaldixkan “Son et Lumières” delako arropa erakuste handiusa egin nahi da eta izigarriko sosa ezarten arropetan. Marzelin etzen althe. Marzelinek bere pastoral haboroenak arropa urdin eta gorriekin egin dütü, “reconstitution historique” delakoa egin gabe eta kolore urdin eta gorrien erran nahia ahatzte gabe. Azkenean Marzelinentako pastorala züzün ikusgarri bat herrixka batek bere indarrekin muntatü behar züana bere izpiritüaren begiratzeko: arauz gure errejentaren mezüa entzünen da, ordü deno.

Marzelin Hegiaphal, gizon ixil horren handitarzüna izan da, gizon perestü, aita bi-hotz zabal, eüskaldün kartsü eta eüskaltzale langile bezala bere obrekin etsenplü emaile.

Txomin Peillen